


Euskal AEko I+Gko gastua maximo historikora iritsi da 2018an, 1.423,4 milioi euro

I+Gn dedikazio osoa duten ia 20.000 pertsona zenbatu ziren 2018an, aurreko urtean baino %3,8 gehiago

2018. urtean 1.423,4 milioi euro erabili ziren Euskal AEko Ikerketa Zientifikoko eta Garapen Teknologikoko (barneko I+G) jardueretan, aurreko urtean baino %4,4 gehiago, eta erregistratutako serie historikoaren kopururik handiena, Eustatek egindako datuen arabera. 2016an hasitako hazkundeen finkapenaren hirugarren urtea da hau.

Enplegatuak 19.274 izan ziren Dedikazio Osoko Baliokidetzan (DOB), aurreko urtean baino %3,8 gehiago; ikertzaileak, berriz, 13.165 pertsona Dedikazio Osoko Baliokidetzan (DOB), %4,4 gehiago. Gastuarekin gertatzen den bezala, I+Gko langile enplegatuek eta ikertzaileek maximo historikoak lortzen dituzte.

Barneko I+Gko gastuaren bilakaera, BPGrekiko



Iturria: Eurostat eta Eustat. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

BPGri dagokionez, Euskal AEko barneko I+Gko gastua %1,85era iritsi da 2018an, aurreko urteko ehuneko bera. 28ko Europar Batasunaren (EB-28) testuinguruan, eta eskuragarri dauden azken datuak kontuan hartuta (2017), Euskal AE bederatzigarren postuan dago, Herbehereak (%1,99) edo Eslovenia (%1,86) bezalako herrialdeetatik hurbil, nahiz eta Suediatik (%3,4) edo

Austriatik (%3,16) urrun egon. Espainian adierazle hori %1,21ekoa izan zen, eta %2,06koa EB-28 osoan, 2017. urteari dagokionez hori dena.

Lurraldean xehetasunetara jaitsiz, ikusten da ezen Euskal AEn barneko I+Gko gastu osoaren %45,8 Bizkaian egiten dela, %42,5 Gipuzkoan eta %11,7 Araban. Hala ere, adierazi behar da ezen gastu hori Gipuzkoako BPGren %2,37 dela, %1,68 Bizkaian eta %1,35 Araban.

Euskal AEn eginiko barneko I+Gko gastuaren %75,9 enpreetan egikaritu zen

Barneko I+Gko gastua gauzatzeko sektoreari dagokionez, gehiena, %75,9 (1.079,8 milioi euro), Enpresek egin zuten; %17,4 (247,1 milioi), berriz, Goi-mailako Irakaskuntzak egin zuen; eta gainerako %6,8a (96,5 milioi), Administrazioaren menpeko hainbat Erakundek. Barneko I+Gko gastua gauzatzeko banaketa sektorial hori nahiko egonkor mantendu da azken urteotan.

Aurreko urtearekin alderatuta, hiru sektoreetako bik (Enpresak eta Goi-mailako Irakaskuntza) barneko I+Gko gastua %5,5 eta %4,2 handitu dute, hurrenez hurren. Hala ere, Administrazio Publikoaren kasuan %6,2 jaitsi da, neurri handi batean kapital-gastuak murriztu egin direlako; izan ere, 2017an 19,5 milioi euro izatetik iaz 7,1 milioi izatera iragan dira.

Euskal AEn barneko I+Gko gastua, egikaritze-sekoreen eta fondoan jatorriaren arabera (mila euro). 2018

	Guztira	Administrazio Publikoa	Goimailako irakaskuntza	Enpresak	Irabaziasmorik gabeko erakunde pribatuak	Atzerritik etorriak
Guztira	1.423.366	471.023	45.782	771.965	6.791	127.804
Enpresak eta IAGEP	1.079.789	215.809	3363	756.737	1355	102.526
Administrazio Publikoa	96.497	85.273	191	4.768	1.817	4.448
Goimailako irakaskuntza	247.079	169.942	42.228	10.461	3.619	20.829

IAGEP = irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuak

Iturria: Eustat. Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G

Barneko I+Gko gastuaren finantzaketaren ikuspegitik, aurreko urteetako ehunekoak mantendu dira neurri handi batean. Enpresek egindako finantzaketak 772 milioi euro bideratu zituen ikerkuntzara, 2017an baino %3,5 gehiago, eta finantzaketa osoaren %54,2 da, lehen iturri gisa mantenduz.

Finantzaketa publikoa, 471 milioirekin eta %3,7ko gehikuntzarekin, I+Gko gastu osoaren %33,1 izan zen. Administrazio autonomoaren ekarpena da nagusi (377,2 milioi), aurreko urtean baino %4,3 gehiago, eta 2018an administrazio publikoak finantzatutako guztizkoaren %80,1 da (2010ean %62,9 izan zen). Bestalde, administrazio zentralak (69,3 milioi) bere finantzaketa %7,2 murriztu du aurreko urtearekin, eta finantzatutako guztizkoaren %14,2ra mugatu du bere partaidetza; aldundiek eta tokiko administrazioek (24,5 milioi), berriz, %5,2ko partaidetza izan dute, baina %36,9 igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Dedikazio osoko **enplegatuak** 19.274 izan ziren, eta egikaritze-sektoreka honako hauek izan ziren: Enpreetan, 13.678 pertsona (guztien %71); Goi-mailako Irakaskuntzan, 4.288 (%22,2);

eta Administrazio Publikoan, 1.309 (%6,8). Nabarmenezkoa da ikertzaileen gorakada, %4,4; langile guztiak kontuan hartuta, %3,8koa da hazkundera.

I+Gko langileen %35,9 emakumeak ziren 2018an, 2010ean baino ehuneko 2,5 puntu gehiago

Dedikazio osoko I+Gko langileen %35,9 emakumeak ziren; aurreko urtearekiko aldakuntza ia ez da esanguratsua, hamarren bat gehiago langile guztiekiko pisuan, baina 2010. urtearekin alderatuta igoera ehuneko 2,5 puntukoa da, eta 2005. urtearekin alderatuta 4,1 puntukoa.

I+G gauzatzeko sektorea kontuan hartuz, Enpresen eta Goi-mailako Irakaskuntzaren sektoreetan dago emakumeen presentzia kuantitatiboki nabarmenena, 4.108 eta 2.110 emakume, hurrenez hurren; hala ere, termino erlatiboetan, Administrazio Publikoak %53,9 biltzen ditu (706 emakume) eta, aldiz, Goi-mailako Irakaskuntzak %49,2 eta Enpresek %30.

Gastuaren eta pertsonalaren bilakaera (DOB) Euskal Aen. 2010-2018

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
I+G Gastuak									
Guztira (Milioi euro)	1.360.271	1.366.234	1.372.901	1.316.787	1.289.753	1.273.207	1.290.911	1.363.176	1.423.366
Urteko gehikuntza (%)	6,2	0,4	0,5	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4
BPGaren gaineko %	2,04	2,04	2,09	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85(p)
Pertsonala (DOB)*									
Guztira	17.532	17.879	18.682	18.280	18.535	18.217	17.898	18.577	19.274
Urteko gehikuntza (%)	5,0	2,0	4,5	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8
Emakumeak (%)	33,4	34,7	34,7	34,9	35,2	35,2	35,6	35,8	35,9
Ikertzaileak (DOB)*									
Guztira (Milioi euro)	11.071	11.283	11.772	11.959	12.030	12.089	11.916	12.608	13.165
Urteko gehikuntza (%)	6,6	1,9	4,3	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4
Emakumeak (%)	34,0	35,4	35,2	35,0	35,0	35,5	35,3	35,5	35,4

*DOB: dedikazio osoko baliokidetzatza

Iturria: Eustat. **Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika-I+G**

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62